

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 1080/2006/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko uztailaren 5ekoa, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsari buruzkoa dena eta 1783/1999 (EE) Erregelamendua indarririk gabe uzten duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : *«Reglamento (CE) N° 1080/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo de 5 de julio de 2006, relativo al Fondo Europeo de Desarrollo Regional y por el que se deroga el Reglamento (CE) n° 1783/1999» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 210 de 31/07/2006)*

**1080/2006/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2006ko uztailaren 5koa,**

**Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzari buruzkoa dena eta 1783/1999 (EE) Erregelamendua indarrik gabe uzten duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, horren 162. artikuluan 1. paragrafoa eta 299. artikuluan 2. paragrafoa bigarren lerrokada aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(2)</sup>,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(3)</sup>,

Honako hauek hartu dituzte kontuan:

- (1) Tratatuaren 160. artikuluan arabera, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzari (EGEF) erabiliko da Erkidegoa eskualdeen artean dauden desoreka nagusiak zuzentzeko. Hala, beraz, EGEF funtsa lagungarria da eskualdeetako garapen-mailan dauden desberdintasunak gutxitzeko, eta eskualde behartsuenetan dagoen atzerapena arintzeko. Hor, barne hartzen dira landa-guneak eta hiriguneak, gainbehera doazen industriak dituzten eskualdeak, eta desabantaila naturalak edo geografikoak dituzten aldeak, esate baterako, uharteak, mendialdeak, biztanle gutxiak dituzten aldeak eta mugetan daudenak.
- (2) Egiturazko Funtzen eta Kohesio Funtzen xedapen bateratuak Kontseiluaren 2006ko uztailaren 11ko 1083/2006 (EE) Erregelamenduan daude jasota, erregelamendu horretan Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzari, Europako Gizarte Funtzari eta Kohesio Funtzari buruzko xedapen orokorrak ezarrita baitaude <sup>(4)</sup>. Ezinbestekoa da EGEF funtsak finantzatu ahal izango dituen ekintza-motek

buruzko xedapen bereziak ezartzea, betiere, lehen aipatu dugun erregelamenduan finkatuta dauden helburuei jarraiki.

- (3) EGEF funtsaren laguntzak kohesioa bultzatuko duen politikaren estrategia orokorraren barruan sartu behar ditugu; eta, politika horren bidez, laguntzak areago pilatu nahi ditugu Erkidegoak dituen lehentasunen inguruan.
- (4) 1083/2006 (EE) Erregelamenduen arabera, gastua diruz lagun daitezkeen zehazteko arauak nazio-mailan ezarriko dira; baina salbuespen batzuk egongo dira, eta horiei buruzko xedapen bereziak finkatu beharko dira. Hala, beraz, EGEF funtsari dagozkion salbuespenen xedapen bereziak ezarri behar dira.
- (5) Hiri-garapen integratuko eragiketa baten esparruan, beharrezkotzat jotzen da ekintza jakin batzuei laguntza ematea, ingurumena naxerriatuta duten edo bazterkeriazko gizarte-egoeran dauden edo horrela egoteko arriskuan dauden aldeetan etxebizitzak eraberritzeko 2004ko maiatzaren 1etik hona Europar Batasuneko kide bilakatu diren estatuak.
- (6) Ezinbestekoa da argi ezartzea EGEF funtsak etxebizitzako gastuetarako egiten duen ekarpena errenta gutxien duten taldeei kalitate oneko bizitokiak emateko erabili behar dela –orain dela gutxi pribatu bihurtutako etxebizitzak barne hartuta– eta, era berean, gizarte-egoera ahulean dauden taldeei bizitokia emateko erabili behar dela.
- (7) EGEF funtsaren laguntza erabiliz era egokian esku hartu nahi badugu, kudeatze-lan ona egin behar da, eta, horrez gain, lurraldeko eta gizarte- eta ekonomia-arloko eragile guztien lankidetzak behar da, bereziki eskualdeko edo tokiko agintarien lankidetzak, baina, oro har, beste edozein erakunderena ere bai. Hori guztia, batez ere, EGEF funtsarekin batera finantzatutako programa eragileak aplikatzeko aldiak beharko da.

- (8) Estatu kideek eta Batzordeak ondo bermatu beharko dute ez dela inolako berezikeriarik egingo sexua, arrazaren edo etniaren jatorria, erlijioa edo sinesmena, minusbaliotasuna, adina edo sexu-orientazioa dela-eta, EGEF funtsaren finantziarioarekin lagundutako programa eragileak aplikatzen ari diren aldiak.

<sup>1</sup> EO C 255 2005-10-14, 91. or.

<sup>2</sup> EO C 231, 2005-09-20, 19. or.

<sup>3</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko uztailaren 6koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko ekainaren 12koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea), eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko uztailaren 4koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

<sup>4</sup> Ikusi egunkari ofizial honetako 25. orrialdea.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- (9) Erkidegoko URBAN ekimenaren bidez hartutako esperientzia oinarritzat hartuta, garapen iraunkorra bermatu beharra dago; eta, horretarako, horri buruzko neurriak erabat uztartu behar dira EGEF funtsaren laguntzarekin finantzatutako programa eragileekin, eta arreta berezia egin behar zaie tokiko enpleguari eta garapenari lotutako eta izan dezakeen ahalmen berritzaileari lotutako ekimenei. Bestalde, erkidegoko URBAN ekimena Kontseiluaren 1999ko ekainaren 21eko 1260/1999 (EE) Erregelamenduaren 20. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian dago ezarrita; erregelamendu horren bidez Egiturazko Funtsei buruzko xedapen orokorrak ezarri baitira<sup>(1)</sup>.
- (10) Arreta berezia jarri beharko da ekintza hau koherentea eta Erkidegoko beste ekintza batzuekin bateragarria izan dadin, bereziki, ikerketa eta garapen teknologikoko seigarren esparru-programarekin eta lehiakortasuneko eta berrikuntzako esparru-programarekin. Horrez gain, sinergia berezia egon beharko luke, batetik, EGEF funtsak, Europako Gizarte Funtsak, Kohesioko Funtsak eta Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsak emandako laguntzen eta, bestetik, Arrantzako Europako Funtsak emandako laguntzaren artean; bestalde, Europako Gizarte Funtsak laguntza hori eman du Europako Gizarte Funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 1081/2006 EE Erregelamenduak xedatutakoa betez <sup>(2)</sup>; Kohesio Funtsak laguntza hori eman du Kohesio Funtsa sortzen duen 2006ko uztailaren 11ko 1084/2006 (EE) Erregelamenduak xedatutakoa betez <sup>(3)</sup>; Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsak laguntza hori eman du Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtserako laguntzari buruzko 2005eko irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Erregelamenduak xedatutakoa betez (FEADER)<sup>(4)</sup>.
- (11) Bestalde, EGEF funtsak enpresa txikien eta ertainen alde bultzatzen dituen ekintzek egokia izan behar dute, eta laguntza eman behar dute Enpresa Txikien eta ertainen Europako Gutunak ezarritakoa aplikatu dadin; gutun hori Santa Maria da Feirako Kontseilu Europarrak onartu zuen, 2000ko ekainaren 19an eta 20an.
- (12) Arreta berezia egin behar zaie ultraperiferikoak diren eskualdeei, eta, hala, salbuespen gisa, EGEF funtsaren aplikazio-eremua zabaldu egingo da eta, beraz, hedatu egingo da funtzionamendu-laguntzak finantzatzeko; funtzionamendu-laguntza horien bidez, batetik,

konpentsatu nahi dira egoera sozial eta ekonomiko berezi horretan egoteak sortzen dituen kostu gehigarriak, eta, bestetik, arindu nahi dira eskualde horiek dituzten arazo batzuk, hala nola, urruntasuna, uhartea izatea, hedadura txikia, erliebe gaitza, klima-baldintza zorrotzak edota produktu gutxi batzuekiko mendekotasun ekonomikoa; izan ere, faktore horiek hortxe irauten dute, maiz elkarren artean nahastuta gainera, eta kalte larria egiten diote eskualde horien garapenari. Neurri berezi horien oinarri juridikoa Tratatuaren 299. artikuluko 2. paragrafoan bilatu behar da.

- (13) EGEF funtsak tinko heldu behar die biztanle-dentsitate baxuko alderdietan dituzten eta 6. Protokoloan jasota dauden arazoei, hau da, irisgarritasunari eta merkatu handiekiko urruntasunari. Seigarren Protokolo hori, zehazki, 1994ko Atxikitze Aktan jasota dagoen Finlandia eta Suediako Egiturazko Funtsen esparruko 6. helburuari buruzko xedapen bereziei dagokie. Bestalde, EGEF funtsak laguntza eman behar die uharteei, mendialdeei eta mugaldeko eskualdeei eta biztanle gutxiko alderdiei, egoera geografikoa dela-eta zailtasun bereziak dituztelako, eta horrek guztiak erabat oztopatzen duelako leku horien garapena; laguntza horien bidez, garapen iraunkorra bultzatu behar da leku horietan.
- (14) Xedapen bereziak eman behar dira, «Europako lurraldeko lankidetzak» helburuari dagozkion programa eragileak programatzeko, kudeatzeko, eta horien jarraipena eta kontrola egiteko.
- (15) Mugaz eta nazioz gaindiko lankidetzak eta eskualdeen arteko lankidetzak eraginkorra bultzatu behar da Erkidegoarekin muga duten estatuekin, betiere, beharrezkoa baldin bada behar bezala bermatu ahal izateko hirugarren estatu batzuekiko muga dauden estatu kide horietako eskualdeak laguntza egokia jasoko dutela garapenari begira. Hortaz, bada, salbuespen gisa eta, betiere, Erkidegoko eskualdeen onerako baldin bada, egokia da baimena ematea EGEF funtsaren kargura laguntzak finantzatzeko, laguntza horien bidez hirugarren estatu batzuetako lurretan proiektuak egin ahal izan ditzaten.
- (16) Hala, bada, argitasunaren mesedetan, bidezkoa da indarrak gabe uztea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko uztailaren 12ko 1783/1999 (EE) Erregelamendua, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsei buruzkoa dena<sup>(5)</sup>.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

### I. KAPITULUA

<sup>1</sup> EO L 161, 1999-06-26koa, 1 or. Azken aldiz, 173/2005 (EE) Erregelamenduak (EO L 29, 2005-02-02koa, 3. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

<sup>2</sup> Ikusi egunkari ofizial honetako 12. orria.

<sup>3</sup> Ikusi egunkari ofizial honetako 79. orria.

<sup>4</sup> EOL 277, 2005-10-21ekoa, 1. orria.

<sup>5</sup> EO L 213, 1999-08-13, 1. or

## **XEDAPEN OROKORRAK**

### *1. artikulua*

#### **Xedea**

1. Erregelamendu honen bidez, honako hauek ezarri dira: Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (EGEFek) izango dituen eginkizunak; «bateratasuna», «eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua» eta «Europako lurraldeko lankidetzak» helburuei dagokionez Funtsaren esku-hartzeak izango duten irismena –helburu horiek 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 3. artikuluko 2. paragrafoan daude zehaztuta– eta laguntza jasotzeko bete behar diren baldintzak.

2. Bestalde, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak eta Erregelamendu honexek arautuko dute EGEF funtsa.

### *2. artikulua*

#### **Helburua**

Tratatuaren 160. artikuluari eta 1083/2006 (EE) Erregelamenduari jarraiki, EGEF funtsa lagungarria izango da ekonomia- eta gizarte-arloko kohesioa indartuko duten laguntzak finantzatzeko, eta, horretarako, eskualdeetan dauden desoreka nagusiak zuzendu beharko ditu, eskualdeko ekonomien egiturak doitu eta garapena bultzatuz, eta, era berean, gainbehera doazen industriak dituzten eta atzeratuta dauden eskualdeak eraberrituz. Horrez gain, mugaz eta nazioz gaindiko laguntza eta eskualdeen arteko lankidetzak sustatu beharko du.

Hargatik, EGEF funtsak Erkidegoko lehentasunak beteko ditu, eta bereziki aintzat hartuko du lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzeko beharra, lanpostu iraunkorrak sortzeko eta gordetzeko premia, eta garapen iraunkorra bermatzeko beharrezana.

### *3. artikulua*

#### **Esku hartzeko eremua**

1. EGEF funtsak lehentasunezko gaitara zuzenduko du laguntza. Lehentasuneko arlo bakoitzaren barruan finantzatzeko diren ekintzen izaerak eta irismenak ondo islatu beharko dituzte «bateratasuna», «eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua» eta «Europako lurraldeko lankidetzak» helburuen arteko desberdintasunak, 4., 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

2. EGEF funtsak laguntza emango du honako hauek finantzatzeko:

a) Lanpostu iraunkorrak sortzeko edo gordetzeko lagungarriak izan daitezkeen inbertsio emankorrak, batez ere, inbertsioari zuzenean laguntza emanez, eta bereziki enpresa txikietan eta ertainetan (ETE).

b) Azpiegituretan egindako inbertsioak;

c) Potentzial endogenoaren garapena, eskualdeko eta tokiko garapena sustatzeko lagungarriak diren neurrien bidez. Neurri horien artean, besteak beste, laguntza eta zerbitzuak emango zaizkie enpresei, bereziki enpresa txikiei eta ertainei, eta finantzatzeko tresnak sortuko eta garatuko dira, esate baterako, arrisku-kapitaleko, maileguko eta bermeko funtsak, tokiko garapenerako funtsak, interes-hobariak, sareko interkonexioa, eta eskualdeek, hiriek eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloko eragileek elkarren artean egindako esperientzia-trukeak eta lankidetzak.

d) Laguntza teknikoak, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, a) idatz-zatitik d) idatz-zatira bitartean agertzen diren inbertsioen eta neurrien sorta lehentasunezko gaiak gauzatzeko erabili ahal izango da, betiere, 4., 5. eta 6. artikulua ezarritakoa betez.

### *4. artikulua*

#### **Bateratasuna**

«Bateratasuna» helburuari dagokionez, EGEF funtsak bereziki esku hartuko du garapen ekonomikoa iraunkorrari eta integratuari –hala eskualdekoari nola lokalari–, eta enpleguari laguntza emateko. Horretarako, ahalmen endogenoa mobilizatu eta hobetuko du, egitura ekonomikoak modernizatzeko eta dibertsifikatzeko programa eragileen bidez eta enplegu iraunkorra sortuz eta gordez. Xede horiek beteko baditu, bereziki ondoko lehentasunak hartu beharko ditu kontuan; eta politiken konbinazio zehatza, berriz, estatu kideen esku utzi beharko du, bakoitzak dituen ezaugarrien arabera erabaki dezan; hona hemen lehentasunak:

1) Ikerkuntza eta teknologiaren garapena (I+TG), enpresa-izpiritua eta berrikuntza, ikertzeko gaitasuna eta garapen teknologikoa bultzatuz eta Ikerkuntzako Europako Gunean sartzea sustatuz, azpiegiturek ere barne hartuta; Ikerkuntza eta teknologiaren garapenerako (I+TG) laguntzak, batez ere enpresa txikietan eta ertainetan, eta teknologiaren transferentziaren arloan; enpresa txikien eta ertainen, eta goi-mailako irakaskuntza-zentroen, ikerketa-zentroen, eta ikerketa- eta teknologia-zentroen arteko loturak hobetzea; enpresa-sareak garatzea; partzuergo publiko-pribatuak eta enpresa-elkarteak; enpresa txikien eta ertainen taldeei enpresa- eta teknologia-zerbitzuak emateko laguntza; eta enpresa txikietan eta ertainetan enpresa-izpiritu berritzaileko finantziarioa sustatzea finantzia-ingeniaritzako tresnen bitartez.

2) Informazioaren gizartea, hau da, komunikazio elektronikorako azpiegiturek, edukiak, zerbitzuak eta aplikazio lokalak sortzea, zerbitzu publikoak linean izatea, eta zerbitzu horietarako sarbide segurua hobetzea; enpresa txikiei eta ertainei laguntzak eta zerbitzuak ematea, informazioaren

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- eta komunikazioaren teknologiak sartu eta erabil ditzaten edo ideia berriak ustia ditzaten.
- 3) Tokiko garapenerako ekimenak, eta lanpostu berriak sortzeko zerbitzuak egingo dituzten egiturak sortzeko laguntzak, betiere, neurri horiek 1081/2006 (EE) Erregelamenduak barne hartzen ez baditu.
  - 4) Ingurumena, ur-hornidurarako eta uraren eta hondakinen kudeaketarako inbertsioekin; hiriko hondakin-uren tratamendua eta airearen kalitatearen kontrola; desertizazioaren aurkako borroka eta kontrola, eta prebentzioa; kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak; aldaketa klimatikoaren ondorioak arintzeko laguntza, kutsatutako gunek eta lursailak barne hartuta, eta bertan behera utzitako industrialdeak eta alde narriatuak birgaitzeko lana ere bai; naturaren babesa eta biodibertsitatea sustatzea, Natura 2000 guneeetako inbertsioak barne hartuta; laguntzak enpresa txiki eta ertaintzat ekoizpen iraunkorreko ereduak bultzatzeko, ingurumena kudeatzeko sistema errentagarriak sartuz, eta kutsaduraren prebentzioko teknologiak hartuz eta erabiliz.
  - 5) Arriskuen prebentzioa eta, horretarako, arrisku naturalak edo teknologikoak prebenitzeko eta kudeatzeko planak prestatzea eta betetzea.
  - 6) Turismoa, eta, hortaz, aberastasun naturala sustatzea, hori baita turismo iraunkorra garatzeko modu egokia; ondare naturala babestea eta balioestea garapen sozio-ekonomikoa lortzeko; balio gehigarri gehien duten zerbitzu turistikoa hobetzeko laguntzak ematea, eta turismo-modu iraunkorrako berriak bultzatzea.
  - 7) Inbertsioak kultura-ondasunetan, eta kultura-ondarea babestea, sustatzea eta kontserbatzea; kulturako azpiegiturak bultzatzea turismo iraunkorraren garapen sozio-ekonomikoa lortzeko eta eskualdeko ikuskizunak ugaltzeko; eta laguntza ematea kultura-zerbitzuen eskaintza hobetzeko, balio gehigarri gehien duten zerbitzuak eginez.
  - 8) Garraio inbertsioak, Europa barneko sareak eta Europa barneko garraio-sarearekiko lotuneak hobetzeko lana barne hartuta; estrategia integratuak antolatzea garraio garbia lortzeko, eta, horrela, bidaiarien eta salgaien zerbitzuetako sarbidea eta kalitatea hobetzea, eta oreka handiagoa izatea garraioaren banaketa modalean, sistema intermodalak bultzatuta eta ingurumeneko inpaktua gutxituta;
  - 9) Energiako inbertsioak, Europa barneko sareak hobetzeko lana barne hartuta, sare horiek lagungarriak baitira horniduraren segurtasuna hobetzeko, ingurumeneko baldintzak uztartzeko, eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta energia berriztagarriak garatzeko;
  - 10) Hezkuntzako inbertsioak, batez ere Lanbide Heziketan, horien bidez bizitzaren kalitatea eta erakargarritasuna handitzeko;
  - 11) Osasuneko eta gizarte-azpiegiturako inbertsioak, era horretan, eskualdeko eta tokiko garapena handitzeko eta bizitza-kalitate hobea izateko.

### *5. artikulua*

#### **Eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua**

«Eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua» helburuari dagokionez, EGEF funtsaren laguntza, garapen iraunkorreko estrategien esparruan sartuta, batetik, enplegua sustatuko du, eta, bestetik, ondoko hiru lehentasun hauek izango ditu gehienbat:

- 1) Berrikuntza eta ezagutzaren ekonomia sustatzea; horretarako, besteak beste, eskualdeko berrikuntzako ekonomia eraginkorrak sortzea eta sendotzea, harreman sistematikoak izatea sektore publikoarekin eta pribatuarekin, unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin, betiere, tokian tokiko beharrianak kontuan hartuta, batez ere honako hauek kontuan hartuta:
  - a) I+TGn eta berrikuntzan eskualdeak duen ahalmena sustatzea, betiere, zuzeneko lotura badu eskualdeko garapen ekonomikoko helburuekin; eta, horretarako, sektore edo teknologia berezietako lehiakortasunerako zentroein bultzada ematea; ikerkuntza eta teknologiaren garapen industrialeko jarduerak, enpresa txikiak eta ertainak eta teknologiaren eskualdaketa sustatzea; berrikuntza sustatzeko politiken nazioarteko konparazioko ebaluazioa egitea, eta laguntza ematea enpresen arteko lankidetzari eta ikerkuntza eta teknologiaren garapen eta berrikuntza-arloko politika bateratuei;
  - b) Berrikuntza eta enpresa-izpiritua sustatzea tokiko eta eskualdeko ekonomiako sektore guztietan; eta, horretarako, enpresa txikiei eta ertainei laguntza ematea produktu, prozesu eta zerbitzu berriak eta hobeak merkaturatu ditzaten; eta laguntza ematea enpresen eta ikerkuntzako eta goi-mailako irakaskuntzako zentrozen arteko sareei; orobat, enpresa txiki eta ertainei sarbidea erraztea enpresei laguntzeko zerbitzuetara irits daitezten, eta bultzada ematea enpresa txiki eta ertainetan teknologia garbiagoak eta berritzaileagoak sar ditzaten;
  - c) Enpresa-izpiritua sustatzea, batez ere ideia berrien ustiapen ekonomikorako laguntza ematen, eta enpresa berriak sortzea bultzatzen goi-moilako ikastetxeetan eta ikerketa-zentro egokietan eta dagoeneko finkatuta dauden enpresetan;
  - d) Finantza-ingeniaritzako tresnak eta inkubazioko instalazioak sortzea, hartara, enpresa txikien eta ertainen garapen

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

teknologikoa eta ikerketarako ahalmena sustatzeko, eta enpresa berriak sortzeko, gehienbat ezagutza trinkoko enpresa txikien eta ertainen arloan;

- 2) Ingurumena eta arriskuen prebentzioa, eta bereziki honako hau:
  - a) Gune fisikoak birgaitzeko inbertsioak sustatzea, esate baterako, basamortu bihurtutako lursailak, lursail kutsatuak, bertan behera utzitakoak, eta hondatuta dauden industrialdeak sustatzeko direnak;
  - b) Biodibertsitateari eta Natura 2000 guneetarako inbertsioei lotutako azpiegituren garapena sustatzea, betiere, inbertsio horiek lagungarriak baldin badira landa-guneetako dibertsifikazioa eta/edo garapen ekonomiko iraunkorra lortzeko;
  - c) Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien ekoizpena sustatzea, eta energia kudeatzeko sistema eraginkorrak garatzea;
  - d) Hiriko garraio garbia eta iraunkorra sustatzea, batez ere hiriguneetan;
  - e) Planak prestatzea eta neurriak hartzea arrisku naturalak (esate baterako, desertizazioa, lehortea, suteak eta uholdeak) eta teknologikoak prebenitzeko eta kudeatzeko;
  - f) Natura- eta kultura-ondarea babestea eta balioestea, garapen sozio-ekonomikoaren mesedetan, eta natura- eta kultura-arloko aberastasunak sustatzeko turismo iraunkorrak izan dezakeen potentziala garatzeko;
- 3) Oro har, interes ekonomikoa duten telekomunikazioetarako eta garraioeko zerbitzu etarako sarbidea izatea, eta batez ere honako hau:
  - a) Bigarren mailako sareak indartzea, Europa barneko garraio-sareen eta eskualdeko trenbide, aireportu eta portuetako bide-sareen arteko lotuneak eta plataforma multimodalekiko lotuneak hobetuz; horretarako, lotune erradialak egitea trenbide-linea nagusiekin, eta eskualde barneko eta tokiko bide nabigarriak eta distantzia laburreko itsas garraioa sustatzea;
  - b) Informazioaren eta teknologiaren komunikazioetarako sarbidea sustatzea, enpresa txikiek eta ertainek horiek hartu eta behar bezala erabil ditzaten; eta, horretarako, sareetarako sarbidea erraztea, Interneteko sarbide publikoko guneak ezartzea, zerbitzuen eta aplikazioen garapena eta ekipamendua bultzatzea, bereziki, ekintza-planak prestatuz mikroenpresentzat eta artisautza-arloko enpresentzat.

EGEF funtsak lagundutako programa eragileez gain, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 8. artikulua 2. paragrafoan adierazten duen finantziario berezia eta iragankorra jasotzeko aukera duten eskualdeetan, estatu kideek eta Batzordeak laguntza handitzea erabaki ahal izango dute, eta, hala, Erregelamendu honek 4. artikuluan aipatzen dituen lehentasunak barne hartzea.

### *6. artikulua*

#### **Europako lurralde-lankidetz**

«Europako lurralde-lankidetz» helburuari dagokionez, EGEF funtsaren esku-hartzeen ardatza lehentasun hauek izango dira:

- 1) Mugaz gaindiko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloko jarduerak egitea, lurraldeko garapen iraunkorrerako estrategia bateratuak erabiliz; batez ere honako hauek:
  - a) Enpresa-izpiritua sustatzea, bereziki enpresa txikiak eta ertainak zabal daitezten, eta mugaz gaindiko merkataritza, turismoa eta kultura bultzatzea;
  - b) Natura- eta kultura-baliabideen babesa eta kudeatze-lana indartzea eta hobetzea, eta, orobat, arrisku naturalen eta ekologikoen prebentzioa hobetzea;
  - c) Hiri- eta landa-guneen arteko konexioa bultzatzea;
  - d) Bakartzea gutxitzea, garraio-, informazio- eta komunikazio-zerbitzu eta sareetarako sarbidea hobetuz, eta, orobat, sistema eta instalazio hidriko eta energetikoetarako eta mugaz gaindiko hondakinen kudeaketarako sarbidea ere bai;
  - e) Lankidetz bultzatzea, azpiegiturak batera erabiltzea eta gaitasuna garatzea, batez ere osasuna, kultura, turismoa eta hezkuntza bezalako sektoretan.

Bestalde, EGEF funtsak laguntza eman dezake lankidetz judiziala eta administratiboa sustatzeko, mugaz gaindiko lan-merkatuak integratzeko, enplegu-arloko ekimen lokalak bultzatzeko, sexuen arteko berdintasuna eta aukeren berdintasuna sendotzeko, prestakuntzako eta gizarteratzeko prozesuak finkatzeko, eta, era berean, giza baliabideak eta ikerkuntzarako eta teknologiaren garapenerako bitartekoak partekatzea.

Ipar Irlandaren eta Irlandako konderri mugakideen artean dagoen PEACE programari dagokionez, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak II. eranskineko 22. puntuan jasotzen dituen xedapenei jarraiki, EGEF funtsak, lehen aipatu ditugun neurriak bultzatzeaz gain, laguntza eman beharko du eskualde horietan egonkortasun soziala eta ekonomikoa lortzeko, bereziki, erkidegoen arteko kohesioa indartzeko.

2) Mugaz gaindiko lankidetzaren ezartzea eta garatzea, 1. puntuko aplikazio-eremuan sartuta ez dauden itsasaldeko eskualdeen arteko bi aldeko lankidetzaren ere barne hartuta; horretarako, sareak eta ekintzak finantzatzeko dira, azken batean lurraldearen garapen integratua lortzeko, baina, betiere, lehentasun hauek izanda:

a) Berrikuntza: sare zientifikoak eta teknologikoak sortzea eta garatzea, eta ikerkuntza eta teknologiaren garapenerako eta berrikuntzako eskualdeko ahalmenak hobetzea, betiere, horiek laguntza zuzena baldin badira mugaz haraindiko aldeetan garapen ekonomiko orekatua lortzeko. Hartuko diren neurrien artean, honako hauek sartu ahal izango dira: sareak eratzea goimailako irakaskuntzako eta ikerkuntzako zentrotan eta enpresa txikien eta ertainen artean; loturak sortzea, ikerkuntza eta teknologiaren garapenerako zerbitzuen eta ikerkuntza eta teknologiaren garapenerako nazioarteko eszelentziako zentrotan artean, ezagutza zientifikoetarako sarbidea errazteko eta teknologia eskualdatzeko; transferentzia teknologikoko instituzioak senidetzea; eta enpresa txiki eta ertainetan finantza-ingeniaritzako tresna bateratuak garatzea, ikerkuntza eta teknologiaren garapena bultzatzeko;

b) Ingurumena: ur-baliabideak, eraginkortasun energetikoa eta arriskuen prebentzioa kudeatzea, eta mugaz gaindiko dimentsio argia duten ingurumen-erloto jarduerak babestea. Hartuko diren neurrien artean, honako hauek sartu ahal izango dira: ibai-arroak, itsasaldeak, itsas baliabideak, ur-zerbitzuak eta hezeguneak babestea eta kudeatzea; suteen, lehorteen eta uholdeen aurkako prebentzioa antolatzea; itsas segurtasuna hobetzea eta arrisku naturalen eta teknologien aurreko segurtasuna sustatzea; eta, azkenik, natura-ondarea babestea eta balioestea, garapen sozio-ekonomikoa eta turismo iraunkorra sustatze aldera;

c) Irisgarritasuna: garraioko eta telekomunikazio zerbitzuen sarbidea eta kalitatea hobetzeko jarduerak egitea, betiere, nazioz gaindiko izaera argia badute; Hartuko diren neurrien artean, honako hauek sartu ahal izango dira: Europaz gaindiko sareetako mugaz gaindiko zatietan inbertsioak egitea; nazioz gaindiko sareetarako tokiko eta eskualdeko sarbideak hobetzea; nazioz gaindiko eskualdeko sistemen arteko eraginkortasuna handitzea; eta informazioaren eta telekomunikazioaren teknologia aurreratuak sustatzea;

d) Hiri-garapen iraunkorra: garapen polizentrikoa indartzea nazioz gaindi, nazioan eta eskualdean bertan, betiere, agerikoa bada nazioz haraindi inpaktu argia izango duela; Hartuko diren neurrien artean, honako hauek

sartu ahal izango dira: hiriko sareak, eta hiri- eta landa-guneen arteko lotuneak sortzea eta hobetzea; landa- eta hiri-guneek batera dituzten auziak aztertzekeo estrategiak eratzea; kultura-ondarea kontserbatzea eta sustatzea, eta mugaz gaindiko oinarria harturik, estrategia bat bultzatzea garapen-guneak uztartzeko;

Itsasaldeko eskualdeen arteko bi aldeko lankidetzarako laguntzak barne hartu ahal izango ditu 1. puntuan aipatutako alderdiak.

3) Eskualdeko politikaren eraginkortasuna sustatzea; bide hauek indartzuz:

a) Eskualdeko lankidetzaren, ezagutzaren ekonomia eta berrikuntza eta ingurumena eta arriskuen prebentzioa ardatz gisa hartuta, 5. artikulua 1. eta 2. puntuetan ezarritakoari jarraiki.

b) Praktikarik onenak zehazteari, eskualdatzeari eta hedatzeari buruzko esperientziak truketzea, 8. puntuan aipatzen den hiri-garapen iraunkorra ere barne hartuta, eta

c) Azterlanak egitea, datuak biltzea, erkidegoan dauden garapen-ildoak behatzea eta ikertzea, eta antzeko ekintzak burutzea.

## 7. artikulua

### Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Zenbait gastu ez dute eskubiderik izango EGEF funtsaren laguntzarik jasotzeko; hain zuzen, honako hauek dira:

a) Interes zordunak.

b) Lurrak eskuratzea, betiere, lur horien zenbatekoak gainditzen baldin badu aintzat hartzen den eragiketan diruz lagundu daitezkeen guttizko gastuaren % 10. Behar bezala justifikatutako salbuespenetan, kudeaketa-erloto agintaritzak ehuneko handiagoa baimendu ahal izango du ingurumena zaintzarekin zerikusia duten eragiketetan.

c) Zentral nuklearrak eraistea.

d) Berreskuragarria den balio erantsiaren gaineko zerga.

2. Etxebizitzako gastuei dagokienez, soilik lagundu ahal izango dira diruz 2004ko maiatzaren 1etik hona Europar Batasuneko kide bilakatu diren estatuetan, eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Gastuak programatu beharko dira hiri-garapen integratuko eragiketa baten edo lehentasuneko ardatz baten esparruan, eta, betiere, ingurunea hondatuta duten edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden edo horrela geratzeko arriskuan dauden alderdietan.

- b) Etxebizitza-gastuetan honako hau emango da gehienez ere: EGEF funtsak programa eragile horietarako egindako ekarpenaren % 3, edo, bestela, EGEF funtsaren guztiko ekarpenaren % 2.
- c) Gastuak helburu jakin batzuetarako baizik ezin izango dira erabili; hona helburuak:
  - Familia askotako etxebizitzak, edo
  - Agintari publikoen edo irabazteko asmorik gabeko eragileen jabetza diren eta diru-sarrera urriak dituzten familien edota beharizan bereziak dituzten pertsonen etxebizitza gisa baliatzen diren eraikinak.

Batzordeak erabakiko du zein irizpide-multzo bete behar den a) idatz-zatian adierazitako aldeak zehazteko, eta, era berean, zein den diruz laguntzeko moduko esku-hartzeen zerrenda, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 103. artikulua 3. paragrafoan adierazitako prozedurari jarraiki.

3. EGEF funtsarekin batera finantzatzen diren eta 1081/2006 (EE) Erregelamenduak 3. artikuluan adierazitako aplikazio-eremuaren barruan dauden ekintzek nahitaez bete beharko dituzte Erregelamendu horrek diru-laguntzak emateko 11. artikuluan ezartzen dituen arauak.

## II. KAPITULUA

### LURRALDEETAKO BEREZITASUNEN TRATAMENDUARI BURUZKO XEDAPEN BEREZIAK

#### 8. artikulua

#### **Hiri-garapen iraunkorra**

Erregelamendu honetako 4. eta 5. artikuluetan zerrendatu ditugun jardueraz gain, hiri-garapen iraunkorreko obrak barne hartzen dituzten ekintzei dagokienez, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 37. artikulua 4. paragrafoa a) idatz-zatian adierazitakoari jarraiki, hala behar denean, EGEF funtsak laguntza eman ahal izango du estrategia parte-hartzaileak, integratuak eta iraunkorrak gauzatzeko, era horretan, hiriguneetan metatzen diren ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-arazo ugariei aurre egiteko.

Estrategia horiek hiri-garapen iraunkorra sustatuko dute zenbait jardueraren bidez; hona hemen jarduera horietako batzuk: hazkunde ekonomikoa sendotzea, ingurune fisikoa eraberritzea, bertan behera utzitako eta narriatutako industrialdeak birgaitzea, natura- eta kultura-ondarea gordetzea eta biziberritzea, enpresa-izpiritua sustatzea, tokiko enplegua eta erkidegoko garapena indartzea, eta egitura demografikoetan izaten diren aldaketak pairatzen dituzten biztanleei zerbitzu ematea.

Bestalde, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 34. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jarduera horiek egiten baldin badira programa eragile zehatz batzuekin edo lehentasuneko ardatz batzuekin programa eragile baten barruan, orduan, EGEF funtsak «eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua» helburuari lotutako neurrietarako ematen duen finantziazioa igo ahal izango du, programaren edo lehentasuneko ardatzaren % 15era arte igo ere, baina, betiere, neurri horiek Europako Gizarte Funtsari buruzko 1081/2006 (EE) Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartzen badira.

#### 9. artikulua

### **Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsarekiko eta Arrantzarako Europako Funtsarekiko koordinazioa**

EGEF funtsak lagundutako programa eragile batek ondorioak baldin baditu erkidegoko bestelako laguntza-tresnak jaso ditzaketan –Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsaren 3. ardatza eta Arrantzarako Europako Funtsari dagokion baxurako arrantza-guneen garapen iraunkorra barne hartuta–, orduan, estatu kideak programa eragile bakoitzean finkatuko ditu EGEF funtsak laguntzen dituen eragiketak eta erkidegoko bestelako laguntza-tresnen bidez sustatutako eragiketak zedarritzeko irizpideak.

#### 10. artikulua

### **Geografia- eta natura-aldeko desabantailak dituzten alderdiak**

1083/2006 (EE) Erregelamenduak 52. artikulua f) idatz-zatian ezarritakoari jarraiki, desabantaila geografikoak edo naturalak dituzten alderdiak barne hartzen dituzten eta, era berean, EGEF funtsarekin batera finantzatuta dauden eskualdeko programek arreta berezia jarriko dute alderdi horietako zailtasun bereziak gainditzeko.

Erregelamendu honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, EGEF funtsak laguntza eman ahal izango du, bereziki, kultura- eta natura-ondareari lotutako jarduera ekonomikoak garatzeko, sustatzeko eta haien irisgarritasuna hobetzeko, eta, orobat, turismo iraunkorra indartzeko eta natura-baliabideen erabilera iraunkorra bultzatzeko.

#### 11. artikulua

### **Eskualde ultraperiferikoak**

1. 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren II. eranskinen 20. puntuan jasota dagoen zuzkidura gehigarri espezifikoa eskualde ultraperiferikoek Tratatuaren 299. artikulua 2. paragrafoan zehaztutako zailtasunen ondorioz egin behar dituzten gastu gehigarriak konpentsatzeko erabiliko da, hain zuzen, honako hauek laguntzeko:

- a) Laugarren eta/edo bosgarren artikuluan adierazitako lehentasunak, hala behar denean;

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- b) Salgaien garraioko zerbitzuak eta garraio-zerbitzuak abian jartzeko laguntza;
  - c) Makineriaren mantentze-lana, gehiegizko tamaina eta biltegiaren edukiera mugatuak eragindako arazoak eta, orobat, tokiko merkatuan dagoen giza baliabideen gabezia gainditzeko egiten diren eragiketak.
2. Hirugarren artikuluari jarriki, zuzkidura gehigarri espezifikoa inbertsioko gastuak finantzatzeko erabili ahal izango da. Gainera, zuzkidura gehigarri espezifikokoaren % 50, gutxienez, eskualde ultraperiferikoetan zerbitzu publikoko kontratuei eta betebeharrei lotutako gastuak eta funtzionamenduko laguntzak finantzatzeko erabiliko da.
3. Baterako finantziazioaren ehuneko aplikatuko zaion kopurua eta onuradunak egindako gastu gehigarriak -1. paragrafoan adierazitakoak- proportzioan egongo dira bakar-bakarrik zerbitzu publikoaren kontratuei eta betebeharrei lotutako gastuen eta funtzionamenduko laguntzen kasuan, eta, inbertsioko gastuak baldin badira, diruz lagundu daitezkeen gastu guztiak hartu ahal izango dituzte barne.
4. Artikulu honi lotutako finantziazioa ezin izango da erabili ondokoak diruz laguntzeko:
- a) Tratatuaren I. Eranskinean jasotako produktuei lotutako eragiketak;
  - b) Tratatuaren 87. artikulua 2. paragrafoa) idatz-zatiari jarraiki baimendu diren pertsonen garraiorako laguntzak;
  - c) Zerga-salbuespenak eta karga sozialen salbuespenak.

### III. KAPITULUA

#### «EUROPAKO LURRALDEKO LANKIDETZA» HELBURUARI DAGOZKION XEDAPEN BEREZIAK

##### 1. ATALA

##### Programa eragileak

##### 12. artikulua

##### Edukia

«Europako lurraldeko lankidetzaren» helburuaren arabera prestatutako programa eragileek ondoko informazioa eduki beharko dute:

- 1) Lankidetzako gunearen analisi bat, eta bertan, ondo zehaztuta, dauden alde indartsuak eta ahulak edo gabeziak, eta horri dagokionez hartu den estrategia ere bai;
- 2) Programak hartzen dituen guneen barruan, diruz lagundu daitezkeen guneen zerrenda bat, eta,

mugaz gaindiko lankidetzaren programei dagokienez, 21. artikulua 1. paragrafoan aipatzen dituen malgutasun-aldeak barne hartuta;

- 3) Kohesio-arloan erkidegoan dauden orientazio estrategikoei lotutako lehenetasunen justifikazioa, dena delako estatu kideak «Europako lurraldeko lankidetzaren» helburuari jarraiki finantzatu dituen ekintzak zein erreferentzia-esparru nazionaletan sartu dituen, eta 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 48. artikulua 2. paragrafoan azaltzen den *ex ante* ebaluazioaren emaitzak.
- 4) Lehenetasuneko ardatzei eta horien helburu zehatzei buruzko informazioa. Helburu horiek zenbatzeko, inpaktuaren eta emaitzen adierazleen kopuru txiki bat erabiliko da, proportzionaltasunaren printzipioari jarraiki. Adierazleek aukera emango digite egindako aurrerapenak neurtzeko, abiaburuko egoera eta lehenetasuneko ardatzen helburuen lorpena kontuan izanik;
- 5) Informazio-ondorioetarako soilik, banakapen bat egin beharko da, kategorien arabera, EGEF funtsaren ekarpena erabiltzeko egin den aurreikuspena xehatuta, eta, betiere, Batzordeak onartutako garapen-arauei jarraiki eta 1083/2006 (EE) Erregelamendua 103. artikulua 3. paragrafoan adierazitako prozedura betez;
- 6) Finantziario-plan bakarra egongo da, estatu kideen arabera banakatu gabe; eta planak bi koadro hauek edukiko ditu:
  - a) Koadro batean, urteka banakatuko da EGEF funtsaren ekarpena erabiltzeko egin den aurreikuspenaren finantzako diru-kopuruaren guztizko zenbatekoa, 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 52., 53. eta 54. artikuluei jarraiki. EGEF funtsarako aurreikusi den urteko guztizko ekarpenak bateragarria izan beharko du aplikatu daitezkeen finantza-esparruarekin;
  - b) Beste koadro batean, ondo zehaztu beharko da Erkidegoaren ekarpena osatzen duen finantzako diru-kopuruaren zenbateko osoa, dagokion finantziario publiko nazionala, eta, era berean, EGEF funtsaren ekarpena osatzen duen ehunekoak; eta hori guztia programazioaren denboraldi osorako, programa eragilerako, eta lehenetasuneko ardatz bakoitzerako egin beharko da. Bestalde, 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 53. artikulua xedatutakoaren arabera, ekarpen nazionalak gastu publikoa eta pribatua duenean, koadroak haietako bakoitzaren xehakapena eman beharko digu. Aipatutako artikuluan xedatutakoari jarraiki, dagokion ekarpen nazionalak gastu publikoa badu, koadroak zehatz adierazi beharko du ekarpen publiko nazionala;

- 7) Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsak eta Arrantzako Europako Funtsak finantzatutako neurrien artean dagoen bateragarritasunari buruzko informazioa ematea, hala behar denean;
- 8) Programa eragilea aplikatzeko xedapenak, besteak beste, hauek:
  - a) Estatu kide guztiek 14. artikuluan aipatzen diren agintari guztiak izendatzea;
  - b) Jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak deskribatzea;
  - c) Batzordeak eta onuradunei ordainketak egiteko erantzukizuna duen edo duten erakundeek egindako ordainketak jaso izanaren agiriak arduratzen den erakunde eskudunaren datuak;
  - d) Finantza-fluxuen mobilizazioari eta zirkulazioari buruzko prozeduren definizioa ematea, garrantasuna bermatze aldera;
  - e) Programa eragileren publizitatea eta informazioa bermatuko duten osagaiak ematea, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 69. artikuluan aipatzen duenari jarraiki;
  - f) Batzordeak eta estatu kideek datu informatizatuak trukatzeko adostu dituzten prozedurak deskribatzea, era horretan, ondo bete ahal izateko 1083/2006 (EE) Erregelamenduak ordainketa-, jarraipen- eta ebaluazio-arloan ezartzen dituen baldintzak;
- 9) Proiektu handiak aditzera ematen dituen zerrenda bat, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 39. artikuluan adierazitako moduan egina, programazio-denboraldiaren barruan Batzordeari aurkeztu nahi zaiona onespena eman diezaion.

## 2. ATALA

### **Diru-laguntzak emateko baldintzak**

#### 13. artikulua

#### **Gasturako diru-laguntzak emateko baldintzak**

Erkidegoko arauak ezarrita daudenean izan ezik, gainerako kasuetan, gastua diruz laguntzeko modukoa den zehazteko, «Europako lurraldeko lankidetzak» helburuari jarraiki programa eragile batean parte hartu duten estatu kideek adostutako arau nazional egokiak aplikatuko dira.

1083/2006 (EE) Erregelamenduak 56. artikuluan 4. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrira, eta Erregelamendu honek 7. artikuluan xedatu duenari kalterik egin gabe, Batzordeak ezarriko ditu gastuak diruz laguntzeko arau bateratuak, 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 103. artikuluan 3. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki.

Zazpigarren artikuluan arabera diruz laguntzeko jasota dauden arauak desberdinak baldin badira «Europako lurraldeko lankidetzak» helburuari jarraiki programa eragileren batean parte hartzen duten estatu kideetan, orduan, diru-laguntzak emateko dauden araurik zabalena aplikatuko dira programaren alderdi guztian.

## 3. ATALA

### **Kudeaketa, jarraipena eta kontrola**

#### 14. artikulua

#### **Agintariak izendatzea**

1. Programa eragileren batean parte hartzen duten estatu kideek kudeaketa-agintari bakarra, ziurtatze-lanetarako agintari bakarra eta auditore-lanetarako agintari bakarra izendatuko dute, eta azken hau kudeatze-lanetako agintariaren estatu kidean egongo da. Ziurtatze-lanetako agintariaren ardura izango da Batzordeak egindako ordainketak jasotzea, eta, oro har, onuradun nagusiari ordainketak egitea.

Kudeaketa-agintariak idazkaritza tekniko bateratu bat ezarriko du, programaren arloan ordezkariak duten estatu kideei kontsulta egin ondoren. Idazkaritza horrek laguntza emango die kudeaketa-agintariari eta jarraipen-batzordeari, eta, hala behar denean, auditore-laneko agintariari ere bai, agintari horiek dagozkien zereginak betetzen dituzten bitartean.

2. Programa eragileko auditore-laneko agintariak auditoreen talde baten laguntza jasoko du; talde horretan, programa eragilean parte hartzen duten estatu kideetako ordezkari bana egongo da, eta ordezkari horiek 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 62. artikuluan ezarritako eginkizunak beteko dituzte. Auditoreen taldea eratuko da, gehienez, programa eragilea onesten duen erabakia hartu, eta handik hiru hilabetera. Bere barne-araudia ezarriko du. Programa eragileko auditore-laneko agintaria izango da burua.

Parte hartzen duten estatu kideek aho batez erabaki ahal izango dute auditore-laneko agintariari baimena ematea zuzenean bete ditzan 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 62. artikuluan adierazitako zereginak programak hartzen duen lurralde osoan, lehen lerrokadan zehaztutako auditore-taldekoekin hitz egin beharrik gabe, alegia.

Auditoreek ez dute bete behar 16. artikuluan 1. paragrafoan aipatzen den kontrol-sistema.

3. Programa eragilean parte hartzen duen estatu kide bakoitzak bere ordezkariak izendatuko ditu 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 63. artikuluan aipatzen duen jarraipen-batzorderako.

#### 15. artikulua

#### **Kudeaketa-agintariaren zereginak**

1. Kudeaketa-agintariak bere gain hartuko ditu 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 60. artikuluan

ezartzen dituen eginkizunak, betiere, alde batera utzita, salbuespen gisa, eragiketen eta gastuaren erregularitasunari burukoak arau nazionalai eta Erkidegokoei dagokienez, artikulua horrek b) idatz-zatian ezarritakoarekin bat. Horri dagokionez, ondo bermatu beharko da eragiketa batean parte hartzen duen onuradun bakoitzaren gastua kontroleko arduradunak baliozkotu duela, Erregelamendu honek 16. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki.

2. Kudeaketa-agintariak eragiketa bakoitza gauzatzeko behar diren tresnak ezarriko ditu, hala behar denean onuradun nagusiarekin bat etorri ondoren.

#### *16. artikulua*

##### **Kontrol-sistema**

1. Gastua baliozkotze aldera, estatu kide bakoitzak kontrol-sistema bat ezarriko du, hartara, ondo egiaztatu ahal izateko batera finantzatutako ondasunen eta zerbitzuen hornidura, bere lurraldean egindako eragiketen edo eragiketa-zatien kontzeptuan adierazitako gastua, eta gastu hori eta eragiketa hori edota horrekin lotura duten eragiketen zatiak Erkidegoko eta nazioko arauekin bat datozen ala ez.

Xede horretarako, estatu kide bakoitzak izendatuko ditu kontrol-arduradunak, eta horiek behar bezala egiaztatuko dute eragiketan parte hartzen duen onuradun bakoitzak adierazitako gastuaren legezotasuna eta erregularitasuna. Estatu kideek kontrol-arduradun bakarria izendatu ahal izango dute programaren esparru osorako.

Batera finantzatutako ondasunen eta zerbitzuen hornidura egiaztatu ahal izateko, eragiketa osoa hartu behar bada aintzat, orduan, onuradun nagusia edo kudeaketa-agintaria kokatuta dagoen estatu kideko kontrol-arduradunak egin beharko du egiaztatze-lana.

2. Estatu kideek ondo zainduko dute kontrol-arduradunek gastua baliozkotu dezaten hiru hileko epean.

#### *17. artikulua*

##### **Finantza-kudeaketa**

1. EGEF funtsaren ekarpena kontu bakar batean ordainduko da, nazioko azpikonturik gabe.

2. Estatu kideek irregularitasunak atzemateko eta zuzentzeko duten erantzukizuna gorabehera, eta, era berean, zor ez ziren eta bidegabe ordaindu diren zenbatekoak berreskuratzeko duten ardura gorabehera, egiaztatze-lanetako agintariak ondo zainduko du dena, onuradun nagusiak irregularitasunen bat dela-eta jaso duen zenbatekoa osorik berreskuratze aldera. Bestetik, onuradunek onuradun nagusiari itzuliko diote zor ez zen eta bidegabe ordaindu den kopuru osoa, beren artean sinatutako akordioari jarraiki.

3. Baldin eta onuradun nagusiak lortzen ez badu onuradunetako batek dirua itzultzea, orduan, azken onuradun hori kokatuta dagoen estatu kideak ordaindu beharko dizkio egiaztatze-lanetako agintariari azken onuradun horri bidegabe ordaindutako kopuruak.

#### *18. artikulua*

##### **Lurraldeko lankidetzarako Europako elkarte**

«Europako lurraldeko lankidetzak» helburuaren esparruan programa eragile batean parte hartzen duten estatu kideek errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Europako lurraldeko lankidetzarako elkarteari, hartara, elkarte horren eskuetan uzteko programa eragilea kudeatzeko erantzukizuna eta, era berean, kudeaketa-agintearen eta idazkaritza tekniko bateratuaren eginkizunak haren esku ere uzteko; elkarte hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 1082/2006 Erregelamenduak –lurraldeko lankidetzako Europako elkarteari buruzkoa denak–<sup>(1)</sup> ezarritakori jarraiki sortu zen. Ildo horretan, estatu kideek finantza-erantzukizuna beren gain hartzen jarraituko dute.

#### *4. ATALA*

##### **Eragiketak**

#### *19. artikulua*

##### **Eragiketak hautatzea**

1. Mugaz gaindiko jarduerak egiteko dauden programa eragileei loturik hautatutako eragiketek –6. artikulua 1. puntuan ezarritakoari jarraiki–, eta mugaz gaindiko lankidetzak sortzeko eta garatzeko dauden horiek –6. artikulua 2. puntuan ezarritakoari jarraiki–, gutxienez, bi herrialdetako onuradunak izango dituzte, bi herrialde horietako bat behintzat estatu kidea izango da, eta gutxienez bi era hauetako batean emango dute lankidetzak eragiketa bakoitzean: baterako kontzepzioaren, baterako betearazpenaren, baterako langileriaren eta baterako finantziazioaren bidez.

Hautatutako eragiketak, lehen adierazitako baldintzak betetzen badituzte, herrialde bakar batean egin ahal izango dira, baina, betiere, gutxienez, bi herrialdetakoak diren erakundeek proposatu badituzte.

Lehen azaldu ditugun baldintzak ez zaizkie aplikatuko 6. artikulua 1. puntuko hirugarren letrakadan jasota dagoen PEACE programaren ildoan hartutako neurriei.

2. Seigarren artikulua 3. puntuko a) letran ezarritakoarekin bat etorrita, eskualde arteko lankidetzari dagozkion programa eragileak direla-eta hautatutako eragiketek eskualdeko edo tokiko onuradunak izango dituzte, gutxienez, honako hauek:

<sup>1</sup> Ikusi egunkari ofizial honetako 19. orria.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) Hiru estatu kide, edo
- b) Hiru herrialde, eta horietatik bik, gutxienez, estatu kide izan beharko dute, hirugarren herrialde bateko onuradun bat tartean sartuta dagoenean.

Seigarren artikulua 3. puntuko b) letran ezartzen duenarekin bat etorrira, programa eragileetarako hautatutako eragiketek paragrafo honen lehenengo lerrokadan adierazi ditugun baldintzak aplikatuko dituzte, ahal izanez gero dagokion eragiketa-mota kontuan izanik.

Onuradunak lankidetzan arituko dira ondoko eratan, eragiketa bakoitzari dagokionez: kontzepzioa era bateratuan egiten, batera gauzatzen, langile berberak izaten eta batera finantzatzen.

3. 1083/2006 (EE) Erregelamenduak 65. artikuluan adierazten dituen eginkizunez gain, jarraipen-batzordeak, edo hari informazioa emateaz arduratuko den zuzendaritza-batzordeak, bere gain hartuko du eragiketak hautatzeko erantzukizuna.

### *20. artikulua*

#### **Onuradun nagusiak eta gainerako onuradunek duten erantzukizuna**

- 1. Eragiketa bakoitzean, onuradunek beren arteko bat hautatuko dute onuradun nagusia izan dadin. Onuradun nagusiak ondoko erantzukizun hauek hartuko ditu bere gain:
  - a) Eragiketan parte hartzen duten gainerako onuradunekin dituen harremanen esparrua zehaztuko du, eta, horretarako, akordio bat egingo du eta, bertan, besteak beste, eragiketari esleitutako funtsen finantza-kudeaketa egokia bermatuko duten xedapenak jasoko ditu, batez ere, zor ez ziren eta bidegabe ordaindu diren zenbatekoak berreskuratzeko tresnak.
  - b) Eragiketa osorik burutuko dela bermatzeaz arduratuko da.
  - c) Behar bezala egiaztatuko du onuradun parte-hartzaileek adierazitako gastua benetan egin dela eragiketa burutzeko, eta gastua onuradun horien artean adostutako jardueri dagokiela.
  - d) Ondo frogatuko du kontroleko arduradunek behar bezala baliozkotu dutela eragiketan parte hartu duten onuradunek adierazitako gastua.
  - e) EGEF funtsaren ekarpena igorriko die eragiketan parte hartzen duten onuradunei.
- 2. Eragiketan parte hartzen duen onuradun bakoitzak:
  - a) Adierazi den gastuan irregulartasunen bat bada, horren erantzukizuna bere gain hartuko du.

- b) Bera kokatuta dagoen estatu kideari jakinaraziko dio eragiketa batean parte hartu duela, baldin eta estatu kide horrek dagokion programan horrela parte hartzen ez badu.

### *21. artikulua*

#### **Eragiketen kokapenari buruzko baldintza bereziak**

1. Mugaz gaindiko lankidetzaren arloan, eta behar bezala justifikatutako kasuetan, EGEF funtsak eragiketak edo eragiketen zatiak egitean sortutako gastuak finantzatu ahal izango ditu, —aintzat hartutako programa eragilearen ekarpen osoaren %20ra arte, gehienez— baldin eta eragiketok 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 7. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako programaren baitan diruz lagun daitezkeen aldean alboan dauden NUTS 3 (Estatistikako lurralde-unitateen nomenklatura 3) mailako aldeetan edo alboko gune horiek inguratutakoetan egin badira. Batzordeak eta estatu kideek adostu zuten moduan, salbuespeneko kasuetan, malgutasun hori NUTS 2 mailako guneetara zabaldu ahal izango da baldin eta gune horietan 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 7. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako guneak badaude.

Proiektuari dagokionez, lehenengo paragrafoan adierazten den programako aldetik kanpo dauden kideek egindako gastuak diruz lagundu ahal izango dira, betiere, proiektuak zailtasunen bat badu helburuak lortzeko kide horren partaidetzarik gabe.

2. Nazioz gaindiko lankidetzaren esparruan, eta behar bezala justifikatutako kasuetan, EGEF funtsak aintzat hartu den programa eragilearen ekarpenaren % 20 finantzatu ahal izango du gehienez, bai eta alderditik kanpokoak diren eta lankidetzako xede den aldeko eskualdeen onurarako egindako gastuen eragiketan parte hartzen duten kideek egindako gastuak ere.

3. Mugaz haraindiko, nazioz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren esparruan, EGEF funtsak finantzatu ahal izango ditu Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetako lurraldean egindako eragiketetan edo eragiketen zatietan sortutako gastuak, baina, gehienez, aintzat hartu den programa eragilearen ekarpen osoaren % 10, eta, betiere, hori guztia Erkidegoko eskualdeen onurarako baldin bada.

4. Estatu kideek ondo zainduko dute gastu horiek legezkoak eta erregularrik izan daitezen. Kudeaketa-agintariak baieztatuko du diruz laguntzeko moduko aldeetako eragiketen hautaketa, 1., 2. eta 3. paragrafoetan adierazi bezala.

### **IV. KAPITULUA**

#### **AZKEN XEDAPENAK**

### *22. artikulua*

#### **Xedapen iragankorrak**

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Erregelamendu honek ez du inolako eraginik izango Batzordeak 1783/1999 (EE) Erregelamenduan edo 2006ko abenduaren 31n aplikagarri zen beste edozein legeriatan oinarrituta emandako laguntzak aldatzeko edo bere horretan jarraitzeko orduan, ezta dena delako laguntza hein batean edo guztiz kentzeko orduan ere, izan ere, legeria hori ixten diren arte aplikatuko baitzaie laguntza edo proiektu horiei.

2. Bestalde, 1783/1999 (EE) Erregelamenduaren babesean aurkeztutako eskaerek balio izaten jarraituko dute.

*23. artikulua*

**Indargabetzea**

1. Erregelamendu honen 22. artikuluan xedatutakoa gorabehera, 1783/1999 (EE) Erregelamendua indarririk gabe geratuko da 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon, 2006ko uztailaren 5ean.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea,*  
J. BORRELL FONTELLES

2. Indargabetutako erregelamenduari egindako aipamenak Erregelamendu honi buruzkoak direla joko da.

*24. artikulua*

**Berrikuspen-klausula**

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erregelamendu hau berrikusiko dute, gehien jota, 2013ko abenduaren 31n, Tratatuaren 162. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki.

*25. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Erregelamendu hau indarrean sartuko da *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean.

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
P. LEHTOMÄKI